


BEZEROAREKIKO HARREMANA



Hasteko, bezeroak lortzeko, **sare sozialetan** kontu bat sortu dugu. Twitterren, instagramen eta tiktoken @onanlowcost izena dugu eta hor ahalik eta publizitaterik handiena egiten dugu, gure produktuen argazkiak igoz, gure erosleek gure

dendan erosten dituzten produktuen argazkiak igo ditzaten saiatuz eta saltzen ditugun produktuekin zerikusia duten gaien hastaghak erabiliz.

Herri osoan zehar jarriko ditugun **kartelen** bidez ezagutzera emango gara. Karteletan gure dendan dauden produkturik arraroenak erakutsi, eta horrela are gehiago bistaratu ahal izango ditugu.

Gainera, herriko denda bat denez eta herria oso handia ez denez, gure inguruko ahalik eta jende gehienari kontatzea pentsatu dugu, herri osoan zabaltzeko **ahoz ahokoaren bitartez** eta ezagunak egingo gara herrian zehar. Bezeroen asebetetzea lortzean, beraien gertuko lagunei edo familiartekoei gure saltokia gomendatuko diete konfiantzazko tokiko denda bezala.



Horretaz gain, bezeroen **fidelizazioa** lortzeko gure bezeroei zigiluak ematea pentsatu dugu. Erosketa bakoitzeko zigilu bat eman eta 4 zigilu lortzen dituztenean, produktu bat eramango dute gure dendatik, horretarako prestatuko dugun katalogo batetik.